

Laborari erretretatugaien urteko topaketa zikloa hor dugu berriz. Heldu den ekainaren 6an abiatuko da lehen hitzordu batekin, MSAko aholkulari baten presentzian.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) 6 topaketa programatu ditu urrira arte, laborari erretretatugai batek bere etxaldearen segi uztea prestatzeko eta kausitzeko jakin behar duen guziaz hitz egiteko.

Segida uztea etxaldek biziaren parte da. Alta, prozesua ez da sinplea, galdera frango sortzen direlako memento horretan (segida noiz utzi, zer utzi, nori, nola...?). Ondoko hitzordu hauek puntu horien jorratzen lagunduko dute :

EGITARUA

Ekainaren 6a, osteguna

Erretreta dretxoak, MSA-ko aholkulari batekin

Ekainaren 11a, asteartea

Zer egin lurrekin ?, EHLG-ko juristarekin

Ekainaren 18a, asteartea

Etxaldea estimatzea, lur experta batekin

Irailaren 17a, asteartea

Familia arrañamenduak, notario batekin

Irailaren 24a, asteartea

Zerga neurriak eta etxaldearen segida uztearen kostua, EHLG-ko juristarekin

Topaketa ziklo honen bururatzeko, EHLGk bi formakuntza egun proposatzen ditu norberak bere proiektua gogoetatzeko eta eraikitzeko : bakoitzak bere burua prestatzeko behar duen denbora hartu behar du ; ondotik, bere burua prestatu behar du etxaldearen segida hartuko duen pertsona hautatzeko, haren ezagutza egiteko eta harekin negoziatzeko.

Urriaren 11 (ostirala) eta 15ean (asteartea)

Etxaldearen segida uzteko proiektua eraikitzeko bi egun, transmisioan aditua den soziologo batekin

Egun erdiko saioak izanen dira, Ainiza Monjolosen iraganen direnak, EHLGko egoitzan. Hauetan parte hartzeko izena emaita beharrezkoa da : 05 59 37 18 82

* Topaketa hauek AITA dispositiboaren baitako Eskualdearen eta Europaren laguntza badute.



Badu 20 urte baino gehiago Brigitte Chizelle eta Dominique Lataste, *Autrement-dit* elkarteko kideek etxaldearen segida uztea aztertzen dutela, bereziki laborantza herrikoiaren esparruan.